



# Euskal administrazioek 14 urte baino gazteagoak diren adin txikiko legehausleei emandako arreta hobetzeko gogoetak

Arartekoaren azterlana  
2017ko urtarrila



[www.ararteko.eus](http://www.ararteko.eus)



Euskal administrazioek  
14 urte baino gazteagoak  
diren adin txikiko lege-  
hausleei emandako  
arreta hobetzeko  
gogoetak





# Aurkibidea

1. Sarrera.....	6
2. Egoera eta ikerketaren jatorria .....	6
2.1. Egoera honetan dagoen neska-mutil kopurua	
2.2. Jarraitutako prozedura	
2.3. Udaltzaingoen jarduna	
3. Gogoetak .....	11
3.1. Kaltetutako haurren datuak	
3.2. Atzerapena	
3.3. Gurasoei edota legezko ordezkariari informazioa ematea	
3.4. Entzuna izateko eta bere iritzia aintzat hartzeko eskubidea	
3.5. Entzunaldi prozedura	
3.6. Instituzioen artean helarazitako informazioa	
3.7. Udal gizarte zerbitzuen jarduna	
3.8. Udaltzaingoaren parte-hartzea	



## 1. Sarrera

2015 eta 2016an zehar, Arartekoak 14 urtetik beherako eta Fiskaltzak urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera "babeserako erakunde publikora" bidaltzen dituen haur arau-hausleei ematen zaien arretaren gainean eskumena duten erakunde ezberdinen inguruan galdetu du. Esku-hartzeak iraun duen bitartean, Arartekoak eragile ezberdin hauei informazioa eskatu die, baloratzeko proposamenak aurreratu dira eta hura alderatzeko bilerak egin dira. Dokumentu honek, ikerketa prozesuaren ondorioz sortutakoa, jasotako informazioa eta iritziak jaso eta konpartitu nahi du, Euskadin (hiru lurralde historikoetako bakoitzean ñabardura ezberdinekin) agintaritzek adingabe hauekin lotuta jarduten duten prozeduren ezagutza hobea izateko helburuz eta ahultasun elementu nagusienak ikusgarriago bihurtuz. Proposamenei dagokienez, bai Arartekoak hasiera batean egindakoak baita beste eragile batzuk egindakoak ere, egokitzat jo dutenek egin dituzten balorazio ezberdinekin batera azaldu dira.

## 2. Egoera eta ikerketaren jatorria

Azken urteotan, herri-administrazioak 14 urtetik beherako neska-mutil arau-hausleekin burutu duen jarduera komunean duten keza eta kontsulta batzuk jaso ditugu erakunde honetan, kasuistika eta ikuspegi ezberdinak eduki dituzten arren. Adin txikikoen zigor erantzukizuna arautu duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoak ezarri duen bezala, neska-mutil horiei ez zaie erantzukizunik esleitzen, lege horren arabera (3. artikulua), eta horren ordeaz adin txikikoak babesteari buruzko arauetan ezarritakoa aplikatzen zaie. Horrela, "Fiskaltzak adingabekoen babeserako erakunde publikoari adingabeari dagozkion norbanakoen testigantza bidali beharko dio, egoera baloratzeko helburuz, eta erakunde horrek haren egoerei egokitutako babes neurriak sustatu beharko ditu, urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera"

Arartekoak ez du ezagutzen kasu hauetan jarduteko modua ezartzen duen erregulaziorik, haurrak babesteko gizarte zerbitzuak normalean zuzenduta dauden ohiko babesgabetasun egoeretatik ezberdinak (ñabardura ezberdinekin, behintzat) baitira, bere ustez. Errealitatea da Fiskaltzak aipatutako testigantza foru aldundiei bidaltzen diela, eta hauek, bakoitza ezartzen joan den irizpidearen arabera, kasua haurra edo nerabea bizi den udalerriko lehen mailako arretako gizarte zerbitzuei jakinarazi/helarazi/bideratu egiten du (edo ez), hauek egokitzat jotzen duten moduan jardun dezaten.

Erakunde honek ezagutu ahal izan dituen kasu batzuetan hauteman egin da, ordea, jardunbide horretan disfuntzio handiak gertatu direla, oso erdiguneko alderdietan; hala nola, gurasoen informatzean eta haurrari entzutean, eragina duten disfuntzioak. Seguru asko Arartekoak ezagutu dituen artean muturrekoena den kasuan, udaltzaingoak adingabearen aurkako salaketa bat jaso eta Fiskaltzari jakinarazi zion, bigarrenak foru aldundiari igorri zion testigantza, eta udal zerbitzuari igorri zion azken horrek, balora zezan; bada, heziketa zentroari eta osasun zerbitzuari txostenak eskatu zizkion azken horrek, eta orduan jakin zuten gurasoek auzokide batek euren semea salatu zuela.

Arartekoaren ikuspuntutik, hainbat arrazoik pentsarazi digute udalerriek protagonismo handiagoa eduki

ahal izango luketela eta eduki beharko luketela kasu hauetan, eta egungo prozedurak hobetuko lirartekeela horrela. Arrazoi horien artean honakoak aipatu daitezke:

- Adin txikiko horiek egindako delituek garrantzi eskasa izaten dute kasuen ehuneko oso altuan, eta, agian, egokiagoa izango litzateke familia eremuan eta komunitatean jorratzea horiek.
- Gizarte zerbitzuen euskal sistemaren egungo egituraketa, sistemara sartzeko atetzat jotzen baititu udaleko gizarte zerbitzuak, eta esku-hartzeko komunitate ereduaren alde egiten baitu.
- Horrekin erabat lotuta, udaleko gizarte zerbitzuen egoera pribilegiatua hurbileko lana eta prebentzio lana egiteko orduan (edo fase goiztiarretan esku-hartzeko unean).

Arartekoaren arretaren mende egon diren kexa eta kontsultetako batzuk, gainera, erakunde honetan kezka sortu dute inplikaturako udal zerbitzu ezberdinen arteko koordinazioa dela eta, batez ere Udaltzaingoaren eta gizarte zerbitzuen artean salatutako pertsona adingabea den kasuetan.

Euskadin 14 urtetik beherakoak diren haur arau-hausleei ematen ari zaien erantzunaren balorazio osoa egiteko beharrezkoa den informazioa izateko helburuz, Arartekoa hiru lurralde historikoetako Foru Aldundietara eta 50.000 biztanle baino gehiago dituzten zazpi euskal udalerrietara zuzendu da, kapitalez gain (Gasteiz, Bilbo eta Donostia), Irun (Gipuzkoa), Barakaldo, Getxo eta Portugalete (Bizkaia) direla. Kasu guztietan erakundearen ardura zen:

1. Kasu bolumena, hau da, aldundien kasuan Fiskaltzak eta udalerrien kasuan aldundiek bidalitako 14 urtetik beherako haur arau-hausleen espediente kopurua. Foru erakundeei arau-hausteen tipologiaz ere galdetu zitzairen.
2. Kasu horien esku-hartze prozedura edo ohikoa den jarduteko modua, honakoa zehaztuz: zerbitzuak, esku hartzen duten programak eta langileak, komunikazioa edota udaleko gizarte zerbitzuei bideratzea, informazioa gurasoei edo tutoretza dutenei, hurrari entzutea, hartutako neurriak.
3. Egungo prozeduraren balorazioa (eraginkortasuna, asebetetze maila, hautemandako balizko disfuntzioak...) eta hori hobetzeko proposamenak.
4. Fiskaltzaren testigantza zuzenean udal gizarte zerbitzuetara bidaltzeko aukerari buruzko zure balorazioa (babesgabetasun egoeran dagoen haurrenganako arreta sistema gisa, baita ere dena), eta horrek antolakuntzan, zerbitzuetan, langileengan edo besteetan aldaketak edo errekursoen hornidura handiagoa suposatuko lukeela uste duzuen.

Udalerrien kasuan, gainera, Arartekoak gizarte zerbitzuen eta Udaltzaingoaren edota beste udal zerbitzuen arteko koordinazioaz ere galdetu zuen (bitartekaritza, adibidez, existitzekotan) adingabeek sortutako komunitatean emandako gatazka egoeretan esku-hartzera deituak.

Galdetutako administrazioek emandako erantzunetatik deskribapen elementuak ematen dituztenak azalduko dira jarraian, aztertutako egoera xehetasun handiagoz ezagutzeko aukera ematen duten heinean, eta balorazio izaera dutenak gogoeten atalean sartuko ditugu.

Amaitzeko, Adingabeen Fiskaltzek aztergai den prozeduran egiten duten paper garrantzitsua ikusita, adierazi beharra dugu dokumentu hau idazten amaitu aurretik balorazio garrantzitsuenak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Fiskaltzen adingabeen ataletako arduradunekin alderatu zirela, eta erakunde honek euren prestasun ona eta kolaborazioa eskertzen die.

## 2.1. Egoera honetan dagoen neska-mutil kopurua

Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Hautzaro eta Senitarte Zerbitzuan ez dute informazio hori banatuta, ez baita egoera tipologia honen erregistro zehatza egiten. Gasteizko Udalak ere ez ditu espediente hauek banatuta zenbatzen, beraz, 2015ean Fiskaltzatik 10 kasu heldu zirela bakarrik adieraz dezake, baina ez daki zenbat ziren "arau-hausleena".

Bizkaian, 2014an Fiskaltzak bidalitako 14 urtetik beherako adingabeen 339 espediente zenbatu ziren. Dena den, datu-basean dagoen informazioarekin ezin da ondorioztatu zeintzuk izan ziren bidaltzeko

arrazoiak, eta beraz, ezin da jakin ekintza penal bat egin zuten adingabeak ziren edo ez. 2015eko azarora arte 343 kasu jaso ziren.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, aurrekoek ez bezala, Fiskaltzak bidalitako "adingabe -18 urteak arte-arau-hausleen" espediente kopurua jakinarazi du, baina ez ditu ezberdintzen 14tik gorako eta beherakoak, eta 354 dira 2013an, 300 2014an eta 276 2015ean. 2015eko Haurtzaroa eta Nerabezaroa Babesteko Zerbitzuaren memorian, dena den, adierazi da 14 urtetik beherako adingabe arau-hausleak osotasunaren % 36a direla. Beraz, azken urte honetan adingabe arau-hausleen kasuak ehun eskas izan direla kalkulatu dezakegu.

Lurralde honetan egindako delitu/falten tipologiari dagokionean, datuen barruko bazterkerian 14 eta 18 arteko neska-mutilek burututakoak ere kontuan hartuz, % 40 baino gehiago dira ebasketa-lapurretak, ondoren jazarpen eta mehatxuak (% 17,5), kalteak (% 16,7) eta eraso eta lesioak (% 13,5).

Gipuzkoar aldundiak 2015eko memorian emandako beste datu interesgarri batzuk adierazi dute kasuen % 86an lehenengo jakinarazpena dela, eta gertakariaren eta Fiskaltzaren jakinarazpenaren artean igarotako batz besteko denbora 59 egunekoa dela, eta jakinarazpenaren eta foru-ebazpenaren artekoa 16 egunekoa.

Udalerriek emandako datuek bereizte eza berdina dute, eta beraz, ez dira oso argigarriak. Dena den, eman duten informazioa hurrengoa da:

- Gasteiz: 2015ean Fiskaltzatik bidalitako espedienteak (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bidez) 10 izan ziren, eta ez dakigu espedientearen oinarria ekintza penal bat den edo beste bat.
- Donostia: 98 adingabe arau-hausle, horietatik 28, 14 urtetik beherakoak, 2013 eta 2014 artean.
- Irun: 34 adingabe 2013an eta 35 2014an.
- Bilbo: 18 urtetik beherako 78 adingabe -ez 14 urtetik beherakoak bakarrik- Foru Aldundiak bideratutakoak 2014an eta 44 2015eko urrira arte, baina ez dakigu "arau-hausleak" diren edo ez.
- Barakaldo: 2014an 8 adingabe eta 20 adingabe 2015ean (5 kasu dira, batean 6 adingabe baitaude sartuta eta bestean 11), foru zerbitzuetatik bideratutakoak.
- Portugalete: Foru zerbitzuak 2014 eta 2015 artean bideratutako 18 urtetik beherako 9 adingabe, eta honetan ere ez dakigu arau-hausleak diren.

Logikoaenez, Fiskaltza da horren gaineko datu zehatzak ematen dituena. Euskal Autonomia Erkidegoaren Fiskaltzaren 2016ko memorian (2015eko ekitaldia) adierazi da 2015ean 14 urtetik beherakoa izateagatik artxibatutako aurretiko diligenziak 43 izan direla Araban, 140 Bizkaian eta 60 Gipuzkoan.

Delituen tipologiari dagokionez, ehuneko handiena eskola jazarpenari (delitu figura hori existitzen ez bada ere), familia arteko biolentziari eta ebasketei dagokio.

## 2.2. Jarraitutako prozedura

**Probintzia Fiskaltzen adingabeko arloen** arduradunek adierazi duten bezala, arau-hausleak 14 urte baino gutxiago dituela egiaztatzen ondoren, bi jardun egiten dira:

- a. Espedienteak babeserako erakunde publikoei bidali. Bizkaia eta Gipuzkoan espediente guztiak bidaltzen dituzte, gertakariaren balorazioa egin gabe, foru zerbitzuen esku uzten dutena, ikusiko den moduan. Araban filtro txiki bat egiten da, delituaren larritasunaren analisian eta berrerortzea edota indarkeria egon den edo ez kontuan izanda. Fiskaltza honek, gainera, foru zerbitzuari 3 hilabete behin informazioa emateko eskatzen dio, gizarte zerbitzuek arduraz jokatu dezaten.
- b. Haurren legezko arduradunei gutun ziurtatu eta hartu-agiriaren bidez jakinarazi.



Jakinarazpenak laburki ematen du arrazoiaren eta adin txikikoen zigor erantzukizuna arautu duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren 3. artikulua arabera babes erakundeari helarazten diotenaren berri. "Gaiaren" deskribapena oso laburra denez, adierazi nahi duena oso argia ez izatearen aukera aipatu da. Dena den, jakinarazpenean ere informazio gehiago lortzeko nora jo daitekeen adierazi da.

Gipuzkoan familia liburuarekin ematen zaie hitzordua, eta momentu hori aprobetxatzen da informazioa astiroago emateko.

Arabian, esan dugun moduan, ez dira kasu guztiak Babeserako Erakunde Publikora bideratzen, haurren legezko ordezkariak bi jakinarazpen mota jaso ditzakete: zuzenean artxibatuko dela diona eta Adingabearen Kontseilura bidaliko dena diona.

Haur arau-hauslearengan babesgabetasun zantzuak hautematen diren kasuetan, foru zerbitzuek babesgabetasun arrisku espedientea zabaltzen dute zuzenean.

Fiskaltzaren aurretiko diligentziak jaso ondoren, **haurrak babesteko 3 foru zerbitzuek** pertsona horren aurretiko espedientea edota espediente irekia existitzen den galdetuko dute. Existitzen bada eta alta bada, informazio hori kasuko arduradun/koordinatzaileari bidaliko zaio, eta honek kasu/esku-hartze planaren barruan sartuko du. Arabako foru zerbitzuan, espedientea aktibo badago, txostena egin eta Fiskaltzara zuzenean bidaltzen da.

Foru erregistroetan aurretiko espedientea existitzen ez denean, Bizkaia eta Gipuzkoan kasua antzeko irizpideetan oinarrituz aztertzen da:

- Gipuzkoako Haurren Zerbitzuko Babesa Eskuratzeko Sailak jokoaren larritasuna, berrerortzea eta haur arau-hauslearen egoera sozio-familiarrari dagokion informazioa baloratu du, bidalitako espedienteak informazio mota hau duen kasuetan, normalean ematen ez dena.
- Bizkaiko Haurren Zerbitzuko Harrera-Balorazio Sailak parte-hartze, jokoaren larritasuna eta gertakaria hezkuntza-zentro batean izan bada -ehuneko handi batean hala izaten da-, zentroaren informazioaren beharra baloratzen du.

Analisia egin ostean, foru aldundiek modu hauetako bateko ebazpena ematen du:

- Arrisku edo ahulgarritasunik ez dela existitzen, adibidez, isolatutako gertakarietan emandako larriak ez diren jokoaren kasuan. Kasu hauetan zuzenean itxi eta espedientea baja ematen da. Bizkaian hau kasuen % 50ean eman zen 2014an eta 2015eko kasuen 82an. Gipuzkoan, 2015eko memoriako datuen arabera, kasuen % 24 inolako esku-hartzerik gabe ebatzi zen.
- Arrisku adierazleak existitzen direla, berrerortzea ematen delako, adibidez. Kasu hauetan udal gizarte zerbitzuetara bideratzen da babesgabetasun edo esku-hartze balorazioa abiarazteko egokitasunaz hausnartzeko. Bizkaian, espedientea lekualdatu aurretik, udal gizarte zerbitzuekin egiaztatzen da arau-hausleak lehen mailako arreta eremuan espedientea irekita duen edo ez. Horrela bada, zuzenean helaraziko da informazioa Esku-Hartze Planean sartzeko, eta alderantziz bada, bideratze formal bat egingo da. Horrela izan zen 2014ko espedienteetako 38tan eta 2015eko 77tan. Gipuzkoan adierazi dute momentu horietan familiari idazten zaiola bideratzearen berri emateko. Gipuzkoan udal gizarte zerbitzuetara leku-aldatzea espedienteen % 60an ematen da.
- Babesgabetasun larriaren zantzuak daudela, adibidez, Zigor Kodeak larritzat jotako delituen kasuan edo biolentzia/larderia maila altuko delituen kasuan, ardura duen helduak jokoaren arau-hauslearen eragilea denaren edo babesten duenaren susmoa. Kasu hauetan babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako foru gizarte zerbitzuek hartzen dute esku-hartzea. Horrela izan zen Gipuzkoan kasuen % 2an eta 19 bizkaitar espedienteetan 2014an.

Arabian dagokien udal gizarte zerbitzuei eskatzen zaie babesgabetasun posiblearen gaineko balorazio bat egiteko, hortik aurrera ohiko moduan jarduteko. Foru Institutuak, hori bai, "bitartekari" lana egiten du Fiskaltzaren eta udal gizarte zerbitzuen arteko informazio jakinarazpen guztian. Gogorazi behar dugu Fiskaltzak espediente bakoitzaren hiru hileroko txostenak eskatzen dituela.

Bideratzea **udal gizarte zerbitzuetara** heltzean, adierazi dugun bezala Fiskaltzak abiarazitako espediente gutxirekin gertatzen dena, zerbitzu hauek, orokorrean, babesgabetasun egoeran dauden haurrentzat artikulatutako prozeduraren arabera jarduten dute.

Udalek bidalitako erantzun askotan adierazi da haurrak babesteko foru organoek hartutako erabakia jakinarazten duen idatzia jaso ondoren, espedientea udal gizarte zerbitzuetara lekualdatzeko (normalean Fiskaltzatik jaso diren dokumentuez lagunduta), udal gizarte zerbitzuetan haur horri dagokion espedientea existitzen den egiaztatzen da. Existitzen bada, erreferentziazko langilearen informazio bezala sartzen da, eta existitzen ez bada, babesgabetasun egoeretako ohiko prozedura abiarazten da. Donostian, babesgabetasun espedientea ireki aurretik, irekitzeko egokitasuna baloratzen da hiru irizpideen arabera: adina, berrerortzea eta delituaren larritasuna. Irekitzea egokia dela ondorioztatzen bada, kasuaren arduraduna esleituko da eta prozedura abiaraziko da; bestela, informazioa gizarte historian sartu eta artxibatuko da.

Kontsultatutako udalerrri guztietan babesgabetasun egoerentzako prozedurak gurasoekin edo haurraren legezko arduradunekin hitzordua aurreikusten du, eta momentu horretan deialdiaren arrazioen berri emango zaie. Balorazio prozesua amaituta (beste jardun batzuk ere barne hartu ditzakeenak, hala nola, hezkuntza edo osasun zentroari informazioa eskatzea), espedientea itxiko da arrisku egoera existitzen ez bada, edo gizartean edo hezkuntza udal esku-hartzea aktibatuko da, babesgabetasun edo babesgabetasun arineko arriskua hautematen bada. Udal gizarte zerbitzuek topatzen duten arazoetako bat da, edozein kasutan, gurasoek edo haurraren legezko ordezkariak hitzorduan agertzen ez direnean. Horrek, balorazioa zailtzen du eta esku-hartzeko aukerak urratzen ditu, beharrezkoa baldin bada.

### 2.3. Udaltzaingoen jarduna

Gai honi ez diote udal guztiek erantzuna ematen. Ematen diotenen Udaltzaingoaren eta udal gizarte zerbitzuen arteko komunikazio ona adierazi dute eta Udaltzaingoak gizarte zerbitzuei parte hartu duten eta adingabeekin lotuta dauden gertaera guztien edo haurrak inplikaturik dauden (edo euren kargura adingabeak dituzten helduak) gorabehera guztien berri ematen dieten prozedura, protokolo edo errutina guztiak jakinarazi dituzte. Horietako askok, gainera, zehaztu dute guraso/tutore/zaintzaile eta gizarte zerbitzuei bidaltzen dizkietela Fiskaltzari izapidetutako salaketa guztiak.

Bilbok eta Barakaldok euren udalerrietan bitartekaritza komunitario zerbitzua existitzen dela jakinarazi dute.

## 3. Gogoetak

### 3.1. Kaltetutako haurren datuak

Erakunde honen arreta jaso duen lehenengo elementua da ume kopurua ezagutzeko zailtasuna, Fiskaltzarentzat izan ezik, honek aurretiko diligenziak dituzten espedienteak bidaltzen baititu. Foru aldundiek emandako datuak Fiskaltzatik bideratutako espedienteek buruz ari dira, eta badirudi ez dela erreza informazioa hemen zalantzan jartzen ari garen bi aldagaien arabera ustiatzea: adingabe arau-hausleak diren eta 14 urte baino gutxiago dituzten.

Udalek, beraien aldetik, adierazi dute Fiskaltzak bideratutako eta foru zerbitzuetatik datozen haurrei eta nerabeei (18 urtetara arte) buruzko jakinarazpenak jasotzen dituztela, baina informazio gutxirekin eta guztietan horien behin-behineko babesgabetasun egoera baloratzeko mandatuarekin. Jasotako datuen ustiaketak erakunde honek eskatutako terminoetan aurkezpen bat egiteko aukera ematen du, edozein kasutan.

Zailtasun hau lotuta dago, alde batetik, Fiskaltzatik helarazitako diligenzietan sartutako mugatutako

informazioarekin, eta bestetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren informazio sistemen ahultasunarekin. Gai hau xehetasun gehiagorekin adierazi da Eusko Legebiltzarrean duela gutxi aurkeztutako ez-ohiko txostenean: *"Udal Gizarte Zerbitzuen egoera Euskal Autonomia Erkidegoan. Egungo egoera eta hobetzeko proposamenak"*.

### 3.2. Atzerapena

Galdetutako instantzia guztiek adierazi dute prozedura denboran gehiegi luzatzen dela, ondorioz esku-hartze berantiarra sortuz, baita epea kanpokoak ere. Kasuren batean gainera, arrazoi honengatik, prozedura ez-eraginkorra edo korapilatsua dela esan izan da. Bestetan, eragin kaltegarria ere izan dezakeela adierazi da, jorratuta zeuden eta agian beste bide batzuetatik "konponduta" zeuden gaiak berrirekitzen dituelako. Gainera, eraginkorra ez den prozedura bat da, kasu zehatzen eta entitate gutxi duten ehuneko altuagatik eta hura diskriminatuzko foru balorazio taldeetan hartzen dituen errekurso kopuruagatik bakarrik bada ere.

Horrela, ezinbestekoa da inplikaturako eragile guztiek agudotasun konpromisoa hartuz izapideak azkartzea, modu horretan, esku-hartzea haurren beharrei egokiturako denbora eta moduan emango dela bermatzeko.

### 3.3. Gurasoei edota legezko ordezkariari informazioa ematea

Guraso-ahala duten gurasoek euren seme-alabak zaintzeko eta arreta emateko betebeharra dute eta, Kode Zibilaren 162. artikulua arabera, emantzipatu gabeko adingabeen seme-alaben ordezkariak legalak dira. Nazio Batuetako Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 5. artikuluan eta Haurren Eskubideen Europar Gutunaren 12. atalean ezarritakoarekin bat, kide diren Estatuak gurasoei seme-alaben garapen eta hazkuntzarekiko euren ardurak egoki burutzeko dagokion asistentzia bermatu beharko diete.

Honi dagokionez, iritzi orokorra da galdetutako administrazioen artean gaur egun jarraitutako prozedurak familiarri ez diola informazio egokia ematen. Erakunde honek ezagutu dituen kasuak horrela egiaztatu dute.

Ondorioz, egokia dirudi haurren ordezkari legalei informazioa bermatzen dien prozedura bat ezartzea prozesuak irauten duen bitartean. Honek esku-hartzen duten eragile guztiak inplikatutako behar ditu, epe barruan egiteko konpromisoa har dezaten eta euren esku-hartzearen jatorriaren gaineko informazioa eman dezaten, egingo dutenaz eta hurrengo epealdian gertatuko denaz. Adibide modura:

- Salaketa Udaltzaingoan edo Ertzaintzan jartzen baldin bada edo hauek baldin badira abiarazten dutenak, familiak abisatu eta jakinaraziko diete (gertakariak eta Fiskaltzara helduko dela).
- Fiskaltzak familiarri jakinaraziko dio "xxx adingabeak salaketa jaso duela honengatik - gertakariak - eta adingabearen erantzukizun penalari buruzko legearen arabera, 14 urte baino gutxiago dituenek, ez dela egozgarria. Dena den, informazio hau gizarte zerbitzuei helaraziko zaie zuekin harremanetan jartzeko helburu honetarako...-egokia dena". Honekin, familiak zerbait gertatu dela eta eurekin harremanetan jarriko direla jakingo du.
- Gizarte zerbitzuen kasuan:
  - Kasuaren espedientea irekita badago edo balorazioak irekitzeko egokitasuna adierazten badu, familiarri hitzordua emango zaio, arrazoiak adieraziz.
  - Espedientea irekita ez badago eta, gainera, lehenengo aldia baldin bada eta garrantzi gutxi badu (kasuen % 90), honakoa jakinaraziko zaie: bere seme-alabari jarritako salaketarekin lotutako Fiskaltzaren jakinarazpena heldu dela honengatik -gertaerak-; gizarte zerbitzuek ez dutela babesgabetasun arriskua dagoenik baloratu; egoeran laguntzeko prest daudela, hazteko laguntza behar badute emango dutela, etab.

Finean, instantzia bakoitzak, jardunaren momentuan, haurraren legezko ordezkariari honen berri ematea egokia litzakeela: jakinarazpena jaso dela, hura sortu duten gertaerak, aurreikusten diren jardunak, egindako balorazioa eta haren emaitza eta aurreikusitako biderazioak.

### 3.4. Entzuna izateko eta bere iritzia kontuan izateko eskubidea.

Aurreko puntuarekin zuzenean lotuta dago haurrak entzuna izateko eta bere iritzia kontuan izateko duen eskubidea. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 12. artikulua honakoa ezartzen du:

1. Kide diren estatuak umeari epai propio bat osatzeko moduan egotea bermatuko diote, bere iritzia modu askean adierazteko haurraren eragina duten gai guztietan, eta aintzat hartuko dira haurraren iritzi guztiak bere adinaren eta heldutasunaren arabera.

2. Helburu horrekin, umeari entzuna izateko aukera emango zaio berarengan eragina duen prozedura judicial edo administratibo guztietan, zuzenean edo egokia den ordezkari edo organo baten bidez, lege nazionalaren jardunaren arauarekin bat.

"Umeak entzuna izateko duen eskubideari" buruzko Umearen Eskubideen Batzordearen 12. ohar orokorrean, haurrak eta nerabeak euren iritzia emateko eta hori aintzat hartzeko duten oztopoak eta egindako praktika askoren kalitatea dela eta 2009an egindakoa, Batzordeak, besteren artean, azpimarratu du bere iritzia emateko duen eskubidea bermatzeak exijitzen duela entzuteko ardura duten pertsonak gaien, aukeren eta hartu daitezkeen erabakien eta euren ondorioen berri emateko. Baita ere jakinarazi behar du zaiola zeintzuk izango diren bere iritzia emateko baldintzak.

Erakunde honek jakin izan du salatutako umeari ez zaiola hitzordurik ematen bere testigantza edo iritzia jasotzeko, ekintza penala gertatzen den momentuan izan ezik. Horregatik, ezinbestekoa da gogoraraztea haurraren bizitzan eragina duten erabakiak hartuko diren heinean, inplikaturako instantzia guztiek entzuna izateko duen eskubidearen jardun eraginkorra eta bere iritziak kontuan izan daitezkeen bermatu behar dutela, horretarako egokiak diren espazioak, denborak eta prozedurak egokituz.

### 3.5. Entzunaldi prozedura

Aurreko puntuetan adierazitako zailtasunak jaso ondoren (denboran luzatzea, gurasoei informaziorik ez ematea eta inplikaturako haurrek ahotsik ez izatea), erakunde honi legeak emandako eskumenetik at egon arren, ondo legoke, salaketa Adingabeen Fiskaltzara heldzean gurasoen entzunaldi eta informazio prozedura simple bat burutzeko, baita haurra entzuteko bat ere. Egiak, helburua ez da delitua egon den edo ez ikertzea (instrukziorik ez dagoelako), baina adingabeen Fiskaltzari ere agindutako babes funtzioetik eta Haurren Eskubideen Batzordearen instrukzioei jarraiki (12. eta 14. Ohar Orokorrak), egitea egokia dela ematen du. Erakunde honen ustez, haurrak gertaeren gainean duen iritzia eta balorazioa entzuteko aukera emango luke (kasu batzuetan konturatzeko), gurasoek neurri hezitzaile edota konpontzaileak hartzea, eta hori guztia denboran gehiegi luzatu gabe, gertatutakoa hartutako neurriekin (ondorioak) lotuz. Horrek, esku-hartzeari izaera nabarmenki hezitzailea ematen dio.

### 3.6. Instituzioen artean helarazitako informazioa

Erakunde honek egiaztatutako eta galdetutako instituzioek aipatutako beste elementu bat da duten informazio urria, bai espedientearen jatorrian dauden gertaeren gainean baita momentu horretara arte egin denaren gainean ere: gurasoei edo ordezkari legalei hitzordua edota informazioa eman zaien (eta zer esan zaien); haurrari entzun zaion eta zein izan den bere testigantza; salaketaren jatorria ezagutzen duten; beste informazio mota bat jaso edo eskatu den, etab.

Prozesu hauetan instituzio askotako eragile kopuru garrantzitsu batek esku-hartzeak konplexutasun gehigarri bat ematen die, eta ezinbesteko bihurtzen du koordinazio egoki bat. Gainera, ez da eragile

ezberdinek aldi berean jardun beharko duten esku-hartze bat, non bakoitzak bere eskumenekoak diren elementuak aurkeztuko dituen, baizik eta analisi eta balorazio ezberdinetan oinarrituz umearekin eta bere familiarekin esku-hartze zehatza burutu beharko duen eragileraino heltzeko xedea duten hurrenez hurreneko jakinarazpen eta bideratzeak. Eszenatoki horretan ez da argudio handirik behar eragile bideratzaileen arteko informazio emate ezin hobe baten behar eta garrantzia azpimarratzeko. Inplikaturako instantzia bakoitzak duen edo lortu duen informazioa egoki eta azkartasunez helarazten aurreratzen den guztia, umearen beharrei denboran eta moduan egokituago egongo den esku-hartze batera eramango gaitu.

Informazio honen osotasunean bereziki aipatu beharra dago espedientea bideratzeko edota txostena eskatzeko helburua. Bideratzea jasotzean jarduten duen instantzia bakoitzak bere jarduna zertarako - azken xedea- eskatu den jakin behar du, egin beharko dituen zeregin eta lanak zehaztuz. Bestalde, instantzia bideratzaileari bere eskariari egokiturako txostenen itzulera errazten dio (eskatzen baldin badira, Arabako Fiskaltzak egin ohi duen bezala), modu horretan errekurtsio eta esfortzuen aprobeixamendu hobea erraztuz.

Horregatik guztiagatik, egokia dirudi instantzia bakoitzak, bideratzaile lanak egiten dituenen, beharrezko informazio guztia jakinaraziko duenari jakinarazpenaren oinarri diren gertakariak, momentura arte egindako jardunak eta egiten den eskari zehatza helaraztea, bideratzearen helburua bereziki aipatuz

### 3.7. Udal gizarte zerbitzuen jarduna

Hasieran esan dugun moduan, gaur egungo gizarte zerbitzuen euskal sistemaren konfigurazioak udal gizarte zerbitzuak sisteman sartzeko ate bezala definitzen ditu. Gainera, "babeserako erakunde publikoa" adierazpenak foru aldundiez zuzenean ari denean, babesgabetasun egoeran dauden haurren babesaren gaineko ardura banatu egiten da, graduaren arabera, foru-administrazioaren eta udal administrazioaren artean. Premisa hauen gainean, galdetutako instantziei Fiskaltzak zuzenean aurretiko diligenziak haurrak bizi diren udalerrietara behin-behinean bidaltzearen gaineko iritzia eskatu zitzaien.

Fiskaltzaren ustez, Kode Zibilak (172. eta 174. artikulua) foru aldundiak Babes Publikoko Erakundea direla adierazten du, eta udalek ezin dituzte ordezkatu. Egia da legediaren duela gutxiko aldatetarik herri-administrazio gehiagoren parte hartzea aurreikusten duela, eta "eskumena duen herri-administrazioa" aipatzen duela arrisku egoeretan adibidez, baina ezin da Babes Publikoko Erakundearekin alderatu.

Argudio hau oso sendoa denez, hala ere, erakunde honek galdetutako administrazioek helarazitako iritzi eta balorazioen gaineko gogoeta batzuk aurkeztu nahi ditu:

- Instantzia guztiek, bai Fiskaltzak udalei zuzenean jakinarazteko egoera hipotetikoan abantailak ikusten dituztenek baita arrazoi ezberdinak direla eta foru zerbitzuen "bitartekaritza" mantentzea egokiago ikusten dutenek ere, kasu larrienak hautemateko ardura berezia adierazi dute, berehalako esku-hartzea eta batzuetan familialik aldentzeko neurria oinarritzkoa den kasu horiek. Aurretik ikusi ahal izan den moduan, ehuneko txikia da, baina existitzen dira.

Kezka berdina daukagu, eta erakunde honen ustez gainditu daitekeen oztipoa da, aurreko ataletan adierazitako prozedura arin, azkar eta beharrezko informazioa duen baten bidez. Honek udal gizarte zerbitzuei egoera ohiko prozeduren bidez baloratzen hasteko aukera emango lieke. Horien artean, larria den jardura eta lehenengo adierazleek egokia dela adierazteko, foru zerbitzuetara bideratzea aurreikusten da.

- Administrazio batzuk positiboki baloratu dute foru aldundien esku-hartzea, irizpide homogeenok ezartzeko ematen duen bermeagatik. Hemen aipatu behar dugu goian aipaturako erakunde honek egindako duela gutxiko ez-ohiko txostenen xehetasun handiagok adierazi den bezala, babesgabetasun egoeran dauden adingabeen eremuan eskusiboa ez den arazo bat dela, udal gizarte zerbitzuen esku-hartzeen beste eremu batzuetara luzatu daitekeena. Horren aurrean eta orokorrean, erakunde honek nahiago du, gaur egungo instituzioen osaera errespetatuz, esku-

hartze ereduaren gainean adostasunaren, udal esku-hartzearen gogoeta, koordinazio eta berrikuntza eremuen eraikuntzaren eta udal taldeen indartzearen alde egitea.

Udal gizarte zerbitzuak, gainera, gaur egungo gizarte zerbitzuen legeak sustatutako komunitate, gertutasun eta prebentzio irizpideak dituen gizarte esku-hartze baten garapenerako testuinguru ezin hobea dira. Esku-hartze honen ezaugarriekin lotuta, galdetutako administrazioetako batzuk ondorengo hiru gaiei lotutako gogoetak planteatu dituzte:

- Gaur egungo gizarte-hezkuntzako esku-hartze zerbitzua gurasoen eskumenak burutzearekin lotutako babesgabetasun arineko kasuei arreta emateko diseinatuta dago eta agian ez da sistema judizialek bideratutako haur hauek behar dutenari behar bezala egokitzen. Hipotesi honetatik, udalerriren batek *ad hoc* programa bat osatzeko beharra adierazi du. Erakunde honek, aldiz, dagoeneko proposatu du (ez-ohiko txostenera jo) *"gizarte-hezkuntza esku-hartze eta esku-hartze psikosozialeko zerbitzuari bultzada berri bat ematea, bere jarduna (...) haurrak babesteko araudi guztian aurreikusitako eskumen eta gurasoen arduren jardun egokiarekin lotutako ezberdinak diren haurren eta nerabeengan babesgabetasun egoera sortzen dituzten arazoei zabaltzeko: jazarpena edo bizikidetzako arazoak (eskola eremuan eta horrez gain), berdinen arteko biolentzia eta harreman afektibo eta sexualetan, arriskuarekin kontsumitzea, etab."* Ikuspegi berdinean, adierazitako antzeko beste adibide bat bezala gehitu daiteke ekintza penala burutu duten haurrei dagokien arazoa, eta kasu horietan hezkuntza esku-hartze bat egitea egokitzat jotzen da.
- Fiskaltzatik datozen jakinarazpenak -berdin foru gizarte zerbitzuetatik igaro diren edo ez- behin-behineko babesgabetasun egoera baten adierazle dira (aurreko puntuan adierazitako zentzu zabalean), hezkuntza eta osasun eragileei eskatzen zaienaren antzera babesgabetasuna ahalik eta lasterren hautematen laguntzeko. Horrela, udal gizarte zerbitzuen prebentzio lanean laguntzen dute. Horiei, erakunde honek garrantzi berezia ematen die (ez-ohiko txostenera jo) eta sareko lanari, ikuspegi komunitarioaren adierazpenetako bat.
- Bestalde, jakinarazpenen jatorri diren gertakarien oinarrian aldean arteko gatazka dago, bitartekaritza bezala jorratu daitekeena. Bitartekaritza komunitarioak, komunitate bat osatzen duten pertsonen arteko bizikidetzak ona helburu duen gatazken konponbide alternatibo gisa zehaztutakoa, inplikaturako haurrentzat hezkuntza balore altu bat izan dezake. Bitartekaritzak gatazka konponbide autogestionatua bilatzea errazten du, non bi aldeak irabazle sentituko diren. Tentsioa duten aldeek hitz egingo dute eta egoeraren ardura hartzeko modu berri bat eraikiko dute. Udalerrietan izaera honetako zerbitzu bat egoteak gatazka hauen eta komunitatearen barruan sortutako beste batzuen konponbidean asko lagunduko luke.

### 3.8. Udaltzaingoaren parte-hartzea

Udaltzaingoak gizarte zerbitzuek sustatutako komunitate, prebentzio eta gertutasuneko esku-hartze honetan parte hartzea guztiz desiragarria da. Euren udaltzaingoekin batera egindako lanari buruzko informazioa eman duten udalen esperientzia ikusita, egokia da bizikidetzak gatazken edo haur eta nerabeen babesgabetasun egoeren hautemate eta prebentzio esku-hartze sareetan hauek sistematikoki sartzeko bultzada bat planteatzea.

Udaltzaingoekin batera (are gehiago kontuan hartuta 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek ez daukatela halakorik), Ertzaintza ere aipatzea komeni da, bada horrek ere parte har lezake antzemateko eta esku-hartze prebentiboko eginkizun horretan, auzolanean udal zerbitzuekin lankidetzan arituz.





Arreta zuzeneko bulegoak

Araban

Prado, 9 01005 Gasteiz Tel.:  
Tel. 945 13 51 18 Faxa: 945 13 51 02

Bizkaian

Albia eraikina. San Vicente, 8 - 11. solairua  
48001 Bilbo  
Tel. 944 23 44 09

Gipuzkoan

Askatasunaren hiribidea, 26, 4.  
20004 Donostia-San Sebastián  
Tel. 943 42 08 88